Oinarri dibulgatibo hori ezarri ondoren, txalapartaren eta zaldieren arteko loturaz mintzo da *Artze* ikuspegi guztiz pertsonal eta poetiko batetik, eta horrek hainbat gai aztertzen eramatzen du aurrerago, hala nola herriaren eta izadiaren arteko lotura, gauza guztiak hizketan zekiten garaia, tradizioa, zientzia, erlijioa, Jainkoa (Iraza-lea)... horien bidez gaur egungo gizartean ikusten diren joera nagusietako asko zorrotz kritikatuz.

Artzek idatzitako prosazko testu nagusiak –esaldi eta hitz bakoitzari zentzua ematen dion idazkera landu baina ez horregatik ulergaitzean taxtutua–, egile beraren poemak ditu lagun eta bidaide. Txalaparten muineraiko bidaia poetikoa da, beraz, liburua, hora hain sakon ezagutu, maite eta zabaldu zuenaren eskuistik egina.

JUAN LUIS ZABALA
Idazlea eta kazetaria

LA PUERTA
MANEL LOUREIRO

UN CRIMEN RITUAL
UN ESCENARIO DE LEYENDA
UNA MUJER DESPERADA POR SALVAR A SU HIJO

MANEL LOUREIRO SORPRENDE CON UN
THRILLER AMBIENTADO EN LA MISTERIOSA GALICIA

Planeta




**“Nazioarteko
zuzenbidearen
ikuspuntutik,
bortxazko desagerketa
kasuak irekita daude
gorpuzkiak
agertzen diren arte”**

ARGAZKIA: ELKAR

JON ALONSO

Naparra, kasu irekia ikerketa-liburua burutu du Jon Alonsok (Iruñea, 1958), 1980an desagertu zen Jose Miguel Etxeberria Komando Autonomoetako militantearen biztziari buruz, eta haren bila berrogei urte daramatzan familiaren bilaketari buruz ere bai.



**NAPARRA
KASU IREKIA**
Jon Alonso
ELKAR

Zergatik da Naparrarena kasu irekia?

Nazioarteko zuzenbidearen ikuspuntutik, bortxazko desagerketa kasuak ez dira preskribatzen; irekita daude desagertutako pertsonaren gorpuzkiak agertzen diren

arte, eta heriotzaren zirkunstanzia, gutxi-asko, argitzen diren arte. Hori dela eta, kasua zabalik dago Nazio Batuen Erakundean. Baina, bestetik, Espainiako Audientzia Nazionalean ere bai, errege eskaera bat eginda daukalako Frantzian, Labrit eta Brocas herrien artean indusketa egiteko gorpuren hondarrak aurkitzen ahalegintzeo. Eta familiarentzat, eta familiarentzat ez ezik euskal jendearentzat ere, kasua irekita eta bizirik dago. Kasu irekia denez, oraindik zer gertatuko zain gaude.

Behin betikoa izan ezin bada ere, berealdikoa da egin duzun lana, dokumentazio...

Hogeい elkarrizketa baino gehiago, hemeroteka, epaitegiako dokumentuak, liburuak... bai, dokumentazio lana handia izan da. Zoritzarrez, gertaera hain zuzen, asko dagoeneko hil dira, eta bizirik dauden de-

nek ez dute hitz egin nahi izan, nirekin behintzat. Beraz, ezinbestean, lana partziala da; baina zintza eta askatasunez egindakoa.

Protagonista bezala, zu zeu ere Iruñean sortua zara 1958an. Gela berean ikasi zenuten gainera. Kointzidentzia hori lagungarri izan duzu?

Egia esan, gure arteko harremana umeak baino ez ginenean izan zen; baina bai, zalantzak gabe horrek zerikusia eduki du gaiaren aukeraketan. Izan ere, nork kontatu behar ditu horrelako gertaerak. Ikuspuntu bat baino gehiago izango da, eta mundu guztia eskubidea du bere egia esateko. Norberak ere bai, zurrumbilo hura hala edo nola bizi bazuen eta idazlea bada, gainera.

Naparra kasua, bat ez bazik gutxienez bi direla diozu liburuan...

Bai, desagerketa gertatu eta gero datorrelako familiak, berrogei urtez, anairen hondarrak berreskuratzeko egin duen eta egiten ari den bidea; eta hori, berez, bida liburu bat idazteko moduko.


Eneko anairen laguntza ezinbestekoa izan zai- zu liburua osatzeko, ezta?

Bai horixe. Gurasoak hil ziren, eta inplikazio-maila ezberdinak dituzten beste ahaide batzuen egitekoa ahaztu gabe, Eneko izan da eta da, gaur egun, familiaren aldetik lan gorronera bere gain hartzen duena. Ahaztu gabe Enekoren emaztea, Amaia, eta semea, Oier. Eta izugarria da, eta salatu beharrekoa, gaur den egunean ere pairatzen ari diren berbiktimizazio prozesua.

Tene Mujika sariaren bultzadaz idatzi duzu lan hau; hala ere, amaitzeko epeak ez dira aurrez kal- kulatekoak izan...

Ez horixe. Kasuaren ezaugarrien ondorio zuzena izan da. Hori dela-eta, eskerrak eman behar dizkio Debako Udalari, Elkar argitaletxeari eta epaimahaiko kideei, pazientzia eduki eta ulerberak eta eskuzabalak izan direlako.

TERESA LARREA
Kazetaria



EL LIBRO DEL QUE TODO EL MUNDO HABLA

EL FENÓMENO LITERARIO
EN EL QUE SE BASA LA SERIE DE

HBO
ESPAÑA

MAXI
TUSQUETS
EDICIONES

LEIRE BILBAO

**Ama izateak sortzen duen
lurraldetik ari zaigu Leire Bilbao.
Jario baten gisan irakurtzeko
poemak ondu ditu, izenbururik
gabeak, beren hurrenkeran
deskubritzekoak, baina
elkarriketa honetara lerro solteez
datoz. Etxeko urak liburuko poemen
esaldi askok hori ere badutelako:
bere horretan, sekulako indarra.**



ETXEKO URAK
Leire Bilbao
SUSA



**“Amatasuna jario bat da,
eta ez gara ohartzen
zenbateraino busti garen
gure aurrekoek eman
diguten horretaz”**

sabelean idazten dut”. Aurreko liburuetan ama izatearen ukazioa edo horren oihartzuna aurki litezke. Orain, berriz, ur hori edan dut eta horrek egarritu egin nau.

Ama izatea zer den berrasmatu egin behar dugula esan nahi nuen. Eta ama izateko era ugari dagoela. Bakoitzak berea topatu behar du, eta momentu bakoitzean eraikitzen jarraitu.

**“Denok gara erabat ezagutuko ez dugun ama
baten seme-alabak”.**

Ama, beti zerbait emango digun hori da, zaindu gaituen hori. Horixe da gehien ezagutzen dugun aldea, baina zein dira beste aurpegiak? Ama ez dugu ezagutzen, eta hala ere, geure ama dela pentsatzen dugu, posesio horretatik.

“Zuloak egiten du sarea”.

Zulo fisiko horrek egiten du sarea, edo tribua, edo datorren guztia. Sarearen elementu garrantzitsuena zuloa da, hustasuna. Huts egiten duten gauzek ere osotasun bat ematen dute.

“Iragate lekuak gara amak”.

Horixe da gure gorputza. Umeak, oso txikiak direnean batez ere, haragizko gure lur horri oso itsatsita daude, eta gure lur horren luzapena ere badira. Zure lurretik eman behar diezu, zure ongarritik hazi, eta gero beren lurraldea aurkitu beharko dute. Ama gisa, lurralde konkistatu bat zara eta utzi egin behar diozu.

Eta konkistatu eta gero, “erbestea da amaren gorputza”.

Beren bidea aukitzen dutenean atzerri bihurtzen zara. Atzerri eta batzuetaan Hats herri.

“Jaiotzeko mundu oso bat hautsi behar da”.

Zainduak izan gara, gero norbere zaintzaz arduratzengarria, eta ama izatean, zaintzera pasatzen zara. Zure iragan eta izateko modua hautsi egiten dira guztiz, eta zara, lehen zinenetan gehi. Bazinena, bestalde, oso letra txikian gelditzentz, hasieran behintzat.

“Dena hasi zen dena amaituko den moduan...”

...Oadolaren barruan. Gauza asko hasten dira odolaren barruan: umeak, gaixotasunak, bizitza, maitasuna... Odolaren barruan dena da zirkularra, dena da iturburua, eta amatasuna ere hori bera da, hari fin bat, gure izaera edota genealogian txertatuta dagoena, eta ez gara ohartzen zenbateraino busti garen gure aurrekoek –birramamak, amamak, amak– eman diguten horretaz. Ukatuta ere, edo norbere ama bezalakoa izan nahi ez dugula esanda ere, hor bada jario bat, oso barruan duguna, eta mugimendua eman behar zaio, horixe bera baitira urak: gutxien espero den tokian azaltzen dira. Ur tanta batek eboluzio bat du, orain da ur, orain da laino, orain da gandu, eta horrela jarraitu behar du. Horregatik hasiko da dena, amaituko den lekuan.

GARBINE UBEDA GOIKOETXEA
Idazlea

**ESTA
NAVIDAD
DISFRUTA
LEYENDO**



MIKEL AYLLON

Mikel Ayllonek (Laudio, 1980)

Donostia Hiriko Kutxa saria irabazi du kontakizun alorrean Zoriontsuak izatea aukeratu genuen lanarekin, gaurko gizon-emakumeon poz eta minetan arakatzen duten istorio sorta.

Zer aurkituko du irakurleak liburu honetan?

Sei ipuinez osatutako bilduma bat da, zoriontasunaren erraietan sartu eta han zer dagoen kontatzeko ahalegin bat. Saldu diguten zorionaren irudi deformatuarekin, ematen du zoriontsuak izan nahi badugu belarrikitik belarriainoko irribarrearekin paseatu behar dugula beti. Baino nago zorionak beste zerbait izan behar duela. Ipuin

hauetako protagonistak zorionaren bila ari dira, baina ez bide errazenetik.

Ipuin bilduma osoaren proiektua bururatuzitzai-zun lehenik eta ipuinak gero idatzi, ala banakako istorioak izan ziren aurrena eta ondotik pentatsu zenuen denak lotzen zituen ezaugarri bat?

Kontakizun bakoitzaz bere aldetik sortu zen, baina berehalaz ohartu nintzen bazutela denek zerbait komunean.



**ZORIONTSUAK IZATEA
AUKERATU GENUEÑ**
Mikel Ayllon
ELKAR

Izan ere, nik neuk antzeko kezkak nituen buruan sasoi hartan: nola hautsi normaltasunaren ideiarekin, zoriontasun iraunkor bat asmatu eta bizitza bigizarrak ziriborratzen hasteko.

Donostia Hiria lehiaketa hau izango da ipuin-bildumak saritzen dituen bakarra, ezta?

Aspaldi begiratzen diegu ipuinei bigarren mailako produktuak balira bezala. Literaturarekin zerikusirik ez duten kontuak egongo dira horren atzean. Eta pena da gero! Areago kontuan hartuta zein ipuingile saiatu eta emankorrak ditugun gurean.

Lehenago eleberria eta saiakera idatzi izan duzu, eta orain berriz ipuinak. Non zabilta erosoago? Ze alde nabitu duzu batetik bestera?

Poesia ere asko idatzi nuen gaztetan eta, orain, antzerki-gidoiak idazten gozatzen ari naiz. Niri istorioak kontatzea gustatzen zait, irakurlearren gogoan zerbait aldarazik duten esperantzarekin. Literatura generoak unibertsitateko eskoletan edo liburu-dendetako apaletan bizi dira, ez idazlearen mahaian.

MAIALEN DIAZ URRIZA

Maialen Diaz Urrizak antzerki alorrean Donostia Hiriko Kutxa saria irabazi ondoren, argitaratu du Herri hura izeneko antzezlana. Deserriari buruzko testuak ezinezko topaketa baten istorioa kontatzen du, sustraien oroimenak baldintzatuta bizi diren Bernardo eta Abeliñerena.

Zergatik antzerki testu bat?

Antzerkian dihardut, eta hitzen eta hiae eszenatokian bizia emango dieten gorputzen arteko harremana inter-

resatzen zait. Antzerki testuen iradokitzeko gaitasunak erakartzen nau; testuak, entitatea izateaz gain, inter-pretagarria behar du izan aurrerago antzezleek, zuzendariek eta talde artistiko osoak sortzeko aukera izateko. Erronka bikoitza da.


Gazteleraezko pasarte asko daude eta euskalki ezberdinak erabiltzen dituzu.

Herriareniko atxikimenduan hizkuntzak garrantzi handia du. Hitzak egiten gaitu, nonbaitera errotzen, eta nolabait etxe izan daiteke. Personaietako batek, impo-satuta gaztelera ikasi arren, euskaraz amets egiten duela esaten du, berea sentitzen duen hizkuntzan azaltzen ditu bere grinak, modu horretan aurkitzen baititu propio-ak dituen hitzak. Euskalkiek, berriz, are sinesgarritasun handiagoa ematen diete personaiet.

Zerk bultzatu zaitu istorio hau idazteria?

Fikzioaren bidez murgildu nahi izan dut sorteriarekin atxikipenarekin harremantzeko modu ezberdinetan. Nork bere herria sentitzen duenaren eta identitatearen arteko harremana jorratu nahi izan dut bi istorio xumeen

bidez, eta harreman horrek bakoitzaren bizitza eta era-bakiak alde batera edo bestera nola bidera dezakeen. Fikzio horien atzean, neure subjektibotasuna dago. Beste asko bezala sorterritik kango bizi naizenez, balizko au-keren jolastea gustuko dut, eta X egin beharrean Y egin izateketan gerta zitekeenarekin espekulatzea; iraganean hori nola bizi zitekeen asmatzeko asmatu dut trama, finean horren atzean baitago galdera hori.




HERRI HURA
Maialen Diaz Urriza
ELKAR

**¿QUÉ MENSAJE OCULTA
LA NOVELA DE MÁS ÉXITO
DE TODOS LOS TIEMPOS?**

OXFORD, 1933 – BILBAO, 1960

DESTINO




El nuevo libro de
Alfonso del Río,
autor de
La ciudad de la lluvia.



ARGAZKIA: ALBERDANIA

IRENE ALDASORO

Irene Aldasorok (Idiazabal, 1955) euskarara ekarri du Sally Rooney (Castlebar, Irlanda, 1991) idazlearen *Normal People* bigarren eleberri arrakastatsua eta Alberdaniak argitaratu Jende Normala izenarekin. Liburuaz eta itzulpenaz prozesuaz printza batzuk eman dizkigu Aldasorok.



JENDE NORMALA
Sally Rooney
ALBERDANIA

Testua estreinakoz irakurri zenuenean sortu al zizun impresiorik?

Enkargua jaso nuenean irakurri nuen estreinakoz. Gazteleraiz irakurri nuen lehenengo, ingeleszeko testua eskratu bitartean. Lehenengo irakurraldi hark ez zidan aparteko impresiorik egin, beharbada nire adinean gaia urrun

samar geratzen zitzaidalako, baina, itzultzerakoan, besete begi batzuekin ikusi dut.

Marianne eta Connell dira liburuaren protagonistak. Marianne diruduna da eta familiarekin harreman gatazkatsua du. Connell, osteria, pobrea da eta amaren babes osoa du, baita institutuko lagunena ere. Genero rolak oso txertatuak daudela esan dezakegu? Liburuak hausmarketarako parada ematen al du?

Bai, ematen du hausmarketarako aukera. Puntu asko ukitzen dira Marianne eta Connell protagonisten arteko harremanaren inguruan: klase sozialak, institutuko (herriko) giroa eta unibertsitateko (hiriko) giroa, familia estandarra, familia gurasobakarra, maitasuna, maitasunik eza, lagunartea, sexua, biolentzia, norberaren asuntasuna, besteen eragina, festak, depresioa... Genero rolei dagokienez, ez dut uste bereziki horretan zentratzen denik nobela; gehiago da, nire usteza, paisaiaren parte bat. Tokatu zaizkien zirkunstanzia horien guztien

artean, Mariannek eta Connellek duten harremanaren izaera eta bilakaera da nobelaren ardatza.

Nola azalduko zenuke Sally Rooneyren idazteko modua edo estiloa?

Hizkera estandarra darabil kontakizunear, eta lagunarteko, gazteen arteko elkarriketean. Esaldiak soil eta lauak dira gehienbat, deskriptiboak; gertaeraren lekukotza ematen dute, ekintzak bata bestearen atzetik azalduz; batzuetan, gauzarik arruntena egiteko behar diren pauso guztia adieraziz. Esate baterako: *Ur-ontzia irakiten hasten da (...). Orduan (Lorraine), altxatu, te-kikara bete, esnea gehitu eta botila hozkailuan sartzen du atzera. Connell begira dagokio.* Era horretara, ekintza ilarratxuraz hutsal horren guztiaren atzean, Lorrainek zer jarrera gordetzen ote duen pentsatzen geratzen da irakurlea: gogoeta?, haserrea?, indiferentzia?... Hala ere, badau, tarteka, esaldi landuagoak, konsiderazioak edo gogoetak agerteko erabiliak. Elkarrizketak, berriz, oso errealistikak dira, eta kontakizunaren barruan txertatuta dator; paragrafotik kanpora ateratzent direnean ere ez daramate marra bereizgaririk, istorio osoa etenik gabeko emari baten modura aurkeztu nahi balitz bezala. Bestalde, merezi du azpimarratzea kontalariaren eta protagonisten arteko muga, batzuetan, kasik ikusezina gertatzen dela.

Ba al da bereziki gozatuarazi edo sufrituarazi di-zunik?

Gozatu eta sufritu elkarren pare samarrean izaten ditugu itzultzaleok, nik uste; hitz bat ezin aurkiturik, edo esaldi bat edo pasarte bat ezin moldaturik amortzatzen ibili ondoren, hura gure gustura jartzea lortzen badugu, orduan hartzten da poza. Arazoak, berriz, liburu honetan, esate baterako, lagunarteko hizkera edo sexuaren inguruko argota eta horrelakoak itzultzean topatutit. Biraो-tipoko esaerek, tira, ez da hainbestekoa arazo, bai baitirudi kasu horietan erdarazko maileguak geuretu ditugula.

LEIRE PALACIOS
Kazetaria

Elkarritzeta osorik:
http://bit.ly/jende_normala



Más de 1 millón de personas se han unido al movimiento **realfooding**. Con Carlos Ríos, tú también puedes mejorar tu vida a través de la alimentación.

¿TE UNES AL CAMBIO?



PAIDÓS

www.paidos.com

EdicionesPaidos @EdicionesPaidos



Hasta la cima de NANGA PARBAT con ALEX TXIKON

Hace días que terminé de leer el libro de Alex Txikon, *La montaña desnuda. Primera ascensión invernal al Nanga Parbat*, el relato de la primera ascensión invernal al Nanga Parbat, y aún no he conseguido entrar en calor. Me froto las manos cada dos por tres, me he abonado a varias tazas de café caliente y un plato de sopa diario, y un runrún lejano pero presente, el sonido bronco del viento, me acompaña en el día a día. No me lo puedo quitar de la cabeza.

Imagino a los montañeros intentando buscar acomodo en tiendas de campaña de apariencia frágil, que parecen a punto de salir volando incapaces de resistir los embates del viento. Sueño con las figuras de colores vivos moverse sobre la nieve, reducidos a figuras anónimas, cubiertas de los pies a la cabeza, sin un resquicio de piel a la vista. Me dejo envolver por la neblina helada que flota en el aire tras la última avalancha en el gran serac, encogido el corazón en el pecho ante el poder de la naturaleza.

No puedo ni imaginarme siquiera cómo puede ser estar a 5.000 metros de altitud con 35 o 50º C bajo cero, ni lo que tiene que ser en esas condiciones sufrir el embate de vientos casi huracanados, feroz, que rugen


Mendi biluzia

Alex Txikonek, himalayista lemoarrak, Nanga Parbat mendira 2016. urtean munduan eginiko neguko lehen igoeraren berri ematen digu liburu honetan. Aurreko expedizio batean gertatutakoak, bidaia prestatzeko arazoak eta expedizioan bertan talde barruan izandako tira-birak azalduko ditu. Txikonen buruan egongo gara eta

berarekin batera, Nanga Parbat mendiaren gailurrera igoko gara.

Horrez gain, hurrengo urtean, K2 mendiaren expedizioa burutu zuenean Daniele Nardi eta Tom Ballard alpinisten erreskatean gertatutakoaren berri izango dugu.

Euskaraz eta gaztelaniaz argitaratuta dago Sua Edizioak argitaletxearen eskutik.



MENDI BILUZIA. NANGA PARBAT MENDIAN EGINDAKO NEGUKO LEHENIGOALDIA
LA MONTAÑA DESNUDA. PRIMERA ASCENSIÓN INVERNAL AL NANGA PARBAT

Alex Txikon
SUA EDIZIOAK



HEMENDIK

Euskal Herriko 50 objektu ikonikoren istorioak

La historia de 50 objetos icónicos de Vasconia

The story of 50 iconic objects from the Basque Country

L'histoire de 50 objets iconiques du Pays Basque

www.hemendik.eu

arrojan temperaturas gélidas y vientos insufribles. Es, sin duda, una oda al sufrimiento.

Pero a pesar de lo dicho, he disfrutado. Sí, de verdad, porque también me he reído en el campo base con las ocurrencias y los comentarios de Moseen, el cocinero; he disfrutado de las charlas y encuentros entre expedicionarios, de la alegría en los reencuentros con viejos amigos, de los bellos atardeceres en el campo I, y de las pequeñas y gran conquistas día a día.

Ha sido mi primera expedición en esas condiciones y, con mi taza de café caliente entre las manos, confieso que ha sido un placer ir de la mano de Alex Txikon, quien me ha hecho partícipe de sus pensamientos, sentimientos y sensaciones. He salido de este relato con nuevos amigos, como Ali, Atta Ullah, Simone, Tamara, Darek, Igone, Pello... Y por si fuera poco, Nanga Parbat, la montaña desnuda, nos ha dado permiso para llegar a su cima y poder regresar para contarlo. Todo eso he vivido junto a Alex. Porque esto no es un relato frío, a pesar del hielo y el viento, de una expedición y una conquista. Este libro destila calor humano, amistad, compromiso, trabajo en grupo... y marca una prioridad absoluta y por encima de cualquier conquista: regresar sano y salvo junto a los tuyos.


No niego que ha habido desencuentros. Sabremos de la invitación a Simone Moro y Tamara Lunger para que formen parte del equipo y de la negativa de Daniele Nardi a aceptarlo, con su consiguiente abandono. Daniele... será una espina clavada en el corazón de Alex, quien no duda ni un momento en organizar una expedición de rescate desde el K2 cuando se entera de que Nardi y Tom Ballard están perdidos en la ruta Mummery del Nanga Parbat.

Y he vuelto, por supuesto, enamorada de la figura de esa montaña de nombre evocador, Nanga Parbat. A través de los ojos y de las magníficas fotografías de Txikon que ilustran el libro, he visto sus aristas afiladas que como cicatrices oscuras y malcaradas asoman sobre el manto de nieve; he escalado por los verticales corredores, el glaciar y los muros helados; y me ha embargado el placer más absoluto con el sol ha acariciado con cálidos colores su cumbre lejana. Me ha encandilado su figura poderosa y solitaria.

Ha sido mi primera expedición invernal y de la mano de Alex Txikon hemos vuelto a casa sanos y salvo. Ese ha sido el gran triunfo.

ARGIÑE AREITIO
Editora

NOBEDADEAK



**LA MONTAÑA
Y EL HOMBRE**
George Sonnier
LINCE



**PARQUE
NATURAL DE
AIZKORRI-ARATZ**
Jon Iraola
SUA EDIZIOAK




**A DÓNDE
Y CUANDO.
EUROPA**
AAVV
LONELY
PLANET

Numerosos alpinistas han escrito páginas gloriosas o patéticas. Ahora bien, entre los muchos libros que se han publicado sobre las epopeyas del alpinismo, pocos tan singulares como La montaña y el hombre de Georges Sonnier.

El montañero Jon Iraola ha escrito una treintena de rutas para recorrer el parque natural de Aizkorri-Aratz, ascender sus montañas y cruzar bosques y arroyos. En definitiva, para conocer y amar un espacio natural único.

El planificador de viajes por Europa de Lonely Planet. Si buscamos ideas para un viaje, este es el libro perfecto para empezar. Organizado en doce capítulos, uno por mes.



**GÉNOVA Y CINQUE
TERRE DE CERCA**
Regis St. Louis
LONELY PLANET



**IKER KARRERA.
BIDEA IPAR**
Unai Ugartemendia
DESNIVEL



**VALLE DE
TENA.
CUNA DE
TRESMILES**
Fernando
Biarge
SUA EDIZIOAK

Génova posee uno de los puertos más visitados e importantes de Italia y el centro histórico medieval más grande de Europa, mientras que Cinque Terre es patrimonio de la humanidad de la Unesco.

La hamar minutu dira Kilian Jornetek helmuga zeharkatu duenetik, eta amezketarra herrian sartu da. Emozioak jota dator. Helmugan zain du Kilian... Iker Karrera mendi korralkariaren ibilbidea jaso du Unai Ugartemendia kazetariak.

Una completa guía viajera con información sobre qué hacer y ver en nuestra visita. Incluye una treintena de opciones montañeras de distintos niveles, desde excursiones familiares a ascensiones a los miradores naturales del valle.

«—Tú y yo podríamos asociarnos para hablar de la vida; levantariamos un gran relato sobre la existencia. ¿Lo hacemos? -dijo el escritor.

—Lo hacemos —contestó el paleontólogo.»



A la venta 23/09/2020

**EL INGENIO DE
MILLÁS Y LA SABIDURÍA
DE ARSUAGA UNIDOS
PARA CONTAR LA VIDA
COMO LA MEJOR DE LAS
HISTORIAS**

ALEGRÍA | Penguin Random House Grupo Editorial

www.megustaleer.com

Disponible en ebook

Disponible en Audiolibro

DURANGO, Kulturaren Azoka nazionala

54 urtez, urtero, euskal kulturak plaza handi bat zabaldu izan du Durangon. Batez ere euskal kulturari ikusgarritasuna ematea zuen helburu, debekatu eta ezkutuan zegoen euskal kultura denen esku jartzea. Liburuak eta diskoak gizarteratu eta saltzeko azoka gisa abiatu zen, eta urteak aurrera, eremua zabalduz joan da, liburuak, musika, antzerkia, zinema... euskal kulturaren topagune da Durangoko Azoka. Eta 54 edizioren ondoren, hara non aurten Durangon ez diren standak jarriko eta Azoka online egingo den.

Ez da standik jarriko, baina Azoka bai egingo da, Internet bidezko Azoka antolatuko baitu. Gerediagak, euskal kulturak bere erakusleihoa gal ez dezan. COVID-19ak gauza asko aldatu ditu 2020 honetan, eta Durangoko Azoka ere aldatu digu, bost egunez (abenduaren 4tik 8ra) euskal kulturan murgiltzeko modu berria topatu beharko dugu aurten, standez stand eta ekitaldiz ekitaldi ezingo baikara ibili Durangon.

Inorentzat gozoa ez den egoera hau baliatu nahi du **ekar** Fundazioak Durangoko Azokaren balioak gogoratzeko, haren garrantzia azpimarratzeko.

Kulturgileentzat plaza izugarria da Durango, bide ematen baitu euskal kultur ekoizpena gizarteratzeko eta jendearen eskura edo bistara jartzeko. Euskal kulturak ikusgarritasun arazo handiak ditu eta Durangoko Azokak sekulako aukera ematen du horretarako: alde batetik bertara milaka lagun hurbiltzen direlako eta haien sortzaile, argitaletxe, diskoetxe, antzerki talde, zine ekoizle eta abarrekin harremanetan jartzeko aukera ematen duelako; bestetik, berriz, urtean zehar ez bezala, euskal kulturak nagusitasuna hartzen duelako hedabideetan. Bertaratzen den jendearentzat ere izugarrizko aukera da, bertan euskal kultura eskura izateko eta gozatzeko aukera zabala topatuko baitu, urtean zehar hain erreza ez dena. Kulturgileen




artean harremanak hasi eta lantzeko ere parada garrantzitsua da.

Durangon euskal kulturaren balioa agertzen da, horretarako behar handia dago, mundu globalizatu honetan eta bi estatu indartsuren pean kokatzen den Euskal Herrian ez baita beti erraza. Oraindik ere, gure herrian bertan, askorentzat erabat ezezaguna da euskal kultura, kultura handiagoek ikusten ez baitute uzten, eta askotan ez gara gai egiten dugunaren tamainaz eta kalitateaz jabetzeko. Horregatik dira beharrezko Durangoko Azoka bezalako ekimenak.

Euskal kulturari ikusgarritasuna ematen dio, sortzaileak eta kulturzaleak harremanetan jartzen ditu, kulturgileen arteko harremana sustatzen du, eta euskal kultuari merkatua ematen dio, bai, azoka den neurrian salerosketa gune ere bai baita, eta kulturak ere behar du merkatua, biziko bada. Beraz, Azokaren balio kulturala eta balio ekonomikoa, biak dira garrantzitsuak eta etorkizunean ere biak izatea behar dugu. Errentagarritasun kulturala eta ekonomikoa uztartu behar dira, bata bestea gabe zaila baita bizirautea.





Garai zailei aurre egiten

Aspalditik esaten diogu **elkar** Fundazioak azoka nazionala Durangori, Euskal Kulturaren Azoka Nazionala dela diogu, hitzari lotutako kulturak bertan leku zabala duelako eta Euskal Herria bere osoan biltzen duelako. Digitalean bada ere, izaerari eutsiko dio Durangoko Azokak, eta eutsiko diogu kulturzale guztiok, garai zailetan ere ahalegin berezia eginez.

Garai zailak bizi ditugu, guztiok, baina euskal kultur sektoreak jakin behar du honi ere aurre egiten. Indarrak bildu eta elkarlanean jardutea dagokigu inoiz baino gehiago, eta horretarako ez da txarra Azoka berrasmaizeak ematen digun aukera. Jarrai dezagun lanean!

Azoka garrantzitsua da euskal kultur eragileentzat (sortzaile, argitaletxe, diskoetxe, elkarte...), aukera ematen duelako urteko lana plazaratzeko, eta bertako



Esan dugun bezala, aurten ez dugu elkarrekin eta aurrez aurre aritzeko aukera izango. Aurten Internet izango dugu topaleku. Ezohiko edizioa izango da hau, baina taupadaka jarraitzen du Azokak, ez da gelditu. Denok nahiko genuke aurtengoa izan dadin parentesi bat eta ahalik eta azkarren lehengo antzeko formatuetara itzultzearia. Horixe da **elkar**

Fundazioak ere nahiko lukeena, baina hori ezin den bitartean, ongi etor bitez alternatibak.

Guztioitzat bezala, euskal kulturarentzat hain larria gertatu den 2020 honetan, ederra litzateke euskal herritarrok urteroko ilusioarekin helduko bagenio Durangoko Azokari, onli-

salmentek arnasa ematen due-lako. Aurten jipoi handia hartu du euskal kulturak eta denon beharra du. Liburu eta musikan ari direnei begira, lagundu dezagun Durangoko Azokaren online dendan edo herrietako dendetan euskal liburu eta diskoak erosiz.

Zorionak eta eskerrik asko, Gereziaga, egoera berrira egoki-tzeko egindako ahaleginagatik eta aurten ere ez diozuelako kale egin euskal kulturari.

ne azokara joaz. Bainaz ez bakarrik erosketak online eginez. Durangotik esan zaigun bezala, aurten Durango ez da herri bakar batean egingo, Euskal Herria osoan egingo da, eta euskal kulturara herriz herri antolatzen diren ekitaldien bidez jo dezakegu eta euskal liburuak eta diskoak herriko liburu-denden bidez eskura ditzakegu.

Hamarkada joan da Xaber Lete hil zenetik. Denborak erabaki ohi du egindako lanaren balioa eta argi dago oiartzuarak lorrazt sakona laga zuela euskal kulturan. Herri gogoan irmo tinkaturik daude bere olerki eta abesti asko, ereserki kategoriatik ez oso urrun, eta gero eta gehiago dira bere lana ikergai bilakatu dituzten liburuak. Besteak

beste, Koldo Izagirrek egin zuen antologiak (*Elurra ikusi dut*), Alex Gurrutxagaren (*Xabier Lete. Aberriaren poeta kantaria*) eta Ainhoa Urien (*Poesia, zaurien ukendu*) saiakera berrieik, Balea Zuria argitaletxearen bolumen kolektiboak eta *Ni naiz. Antologia* diskoko erakusten duten bezala, urte askotarako daukagu Xabier Lete.

URRATS URRATUAK XABIER LETE GOGOAN


Hamar urte dira Xabier Lete hil zela. Haren poemek eta kantek, haren lanek eta gogoetek zeresana ematen jarraitzen dute oraindik. Ez da itzali haren argia, justu kontrakoa baizik. Izaren hautsa bezala, biziberritzen arī da etengabe, handitzen doa garrantzian eta sakoneran. Gure klasikoetako bat da, eta gutxitan lortzen den zerbaitz lortu du: jendearen miresmena eta maitasuna.

Gizakion lana jakintza zela esan zigun *Letek*, ezagutuz aldatzea. Liburu honek omenaldi berezia egin nahi dio Xabier Leteri, eta ezagutza horren hariari tira egin nahi izan diogu poetaren eta gizakiaren irudi osatu bat eskaintzeko.

Guztira, hamar saiakera labur biltzen ditu lan honek, hamar hurbilketa. Horretarako, hamar idazle eta aditu elkartu ditugu: Arantxa Urretabizkaia, Anjel Lertxundi, Juan Kruz Igerabide, Lourdes Otaegi, Itxaro Borda, Inazio Mujika Iraola, Jon Gerediaga, Jon Martin, Alex Gurrutxaga eta Ainhoa Urien.

Liburuan jasotzen den bezala, “existentziaren aurrean bi jarrera erakutsi zituen nabarmenki *Letek*: jazarpen bulartsua eta abaldura. Abaildurak gain hartu ziola pentsa liteke (...) baina eraldatu ere egin zitzzion: damua, fedeña eta maitasun sakona ageri ziren haren jarreran eta hitzetan”.

**URRATS URRATUAK.
XABIER LETE GOGOAN**
Hainbat egile
BALEA ZURIA




POETAREN MUSIKA EMARI BILDUA

Xabier Leteren kantutegi musical poetikoa biltzen duen antologia da Ni naiz diskoa, ibilbide oparo bat ardatzen duten 22 piezaz osatua

Neguarekin joan zen Xabier Lete, orain dela hamar urte, 2010eko abenduaren 4an. Haren inguruko lanak ugari-zen ari dira aurten, heriotzaren urtemugaren abarora. Bere poetikaren eta idazle lanaren ingurukoak izan dira zenbait, eta orain, aldiz, haren kantugintza zabalaeren bilduma antologikoa argitaratu du Elkarrek. Oraintsu arte Elkar diskoezko arduradun izan da Anjel Valdesek eta honela idatzi du antologiak dakarren liburuxka mardulean: "Bere kantutegiaren bidez Xabier Leterengana hurbiltzen garenean, konposizio poetiko-musikaletarako duen talentu erraldoiari erreparatu ez ezik, haren pentsamendu sakonaren mamiaz ere jabetzen gara".

Bi cd-tan bilduta 22 kantuz osaturiko antologia lana da, Xabier Leteren bakarkako lan ugarietatik erauzitako 22 pieza. Beste asko ere izan zitezkeen, baina ibilbide baten arrasto-ardatz nagusiak ezagarritzen dituzte. 60-70 hamarkadetan Herri-gogoa eta Artezi diskoetxeetan argitaratu diskotatik, eta gerora Elkar diskoezkan plazaratuetaik aukeratuak, nagusiki. Ez alferrik, bilduma eta lehen cd-a hasten da Letek berak bere buruaz egindako deskripzio poetikoarekin, 1974ko *Xabier Lete* izenburuko diskoko *Ni naiz* emblematikoaarekin, eta amaitzen da 1992ko *Hurbil irragana* diskoko *Xalbadorren heriotza*-rekin. Eta tartean dira *Izarren hautsa* (*Kantatzera noazu*, 1976), *Haizea dator Ifarraldetik* (*Lore bat zauri bat*, 1978), *Ez dut amets haundirik* (*Kantatzera noazu*, 1976), *Neguaren zai* (*Eskeintza*, 1991), *San Martin, azken larrosa* (*Hurbil ira-*




gana, 1992), *Errota zaharra* (1965- 1968 artean Loiolako Herri Irratian Joxemari Iriondok erregistratutako saioetako aukeratua da), *Habanera* (*Eskeintza*, 1991) eta *Itsooan urak handi* (*Kantatzera noazu*, 1976).

Antologia osatzen duen liburukako testuak idatzi eta apailatzeaz Juan Luis Zabala kazetaria eta idazlea arduratu da: Xabier Leteren kronologia, biografia, *Antton Valverderen* testigantza hurbila eta dokumentazio gehigarriaren bilketa egin ditu, hain zuen ere; Leteren ibilbideko unerik goraipagarrienak jaso eta dagozkien testuinguruan kokatzen dituzte, kantariaren urratsak azpimarratuz.

Bigarren cd-an 12 pieza datozi. *Nafarroa arragoa*-rekin (*Hurbil irragana*, 1992) zabaltzen da diskoa eta *Kontrapas*-ekin itxi. 1978an San Mames futbol zelaia antolatu eta Xoxoa argitaletxeak argiratu *Bai Euskarari* ekitaldiaren grabaketatik jasotako kantua da azken hori. Eta, bi horiez gain, honako beste hauek osatzen dute lana: *Izotz ondoko eguzki*, *Alzateko jaun eta Ondar gorri* (Xabier Lete, 1974), *Euskalerri nerea* eta *Seaska kanta* (*Lourdes Iriondo-Xabier Lete*, 1969), *Langile batzen sema* (*Kantatzera noazu*, 1976), *Lore bat zauri bat* eta *Ideologia*, teologia (*Lore bat, zauri bat*; 1978), *Ez esan maite* (*Eskeintza*, 1991) eta *Kate* (Ez Dok Amairuk sortutako *Baga-Biga-Higa* sentikariaren grabaketatik jasoa, 1971).


GORKA EROSTARBE
Kazetaria



Una joya legendaria en manos de mujeres extraordinarias.



Regresa Megan Maxwell con una novela romántico-erótica tan ardiente que se derretirá en tus manos.



El esperado libro de Defreds.

KOPLA DAGO MUINEAN

**Korrontziren hamargarren diskoak Xabier Amurizak sortu eta
osaturiko hitzak eta Agus Barandiaranek sorturiko trikiti doinu
askotarikoak biltzen ditu**

Kopla dago trikiti doinu, lan eta disko askoren oinarrian, baina ez guztietan derrigorrean. Korrontziren lan berriaren muin-muinean kopla dago, ordea. Eta, horretarako, koplari apartekoena (koplen sortzaile, behatzale eta berreskuratzale den heinean) izan dute bidaide. Xabier Amurizaren hitzok diskoaren liburukan topa litzke, entzungo denaren itsas-argi modura: "Koplaren estetika bizi eta politaren erabilera modernoa ala tradizionala kontzeptuen eta edukien go-

rabeheren dago. Nik neuk, disko honetan bezala, kopla baliatzen dut, bere mugen, nahi dudan edo eskatzen zaidan edozein mezu kantatzeko. Hori bai, beti ere, hain estetika xamgarri bat bihurdura mingarririk ez eragiten saiatuz". Ezin zuen bestela izan eta Koplariak du izenburutzat Agus Barandiaran lemazain duen taldearen lan berriak, eta ezinbestean, egitasmoaren egileta partekatua eta elkarlana aitortzen du azaleko sinadurak ere: Korrontzi & Xabier Amuriza.

Zifra borobilen disko da. Korrontziren ibilbideko hamargarren lan luzea da, eta hamar kantu berri biltzen ditu. Horietatik bakarra da hitzik gabekoa, inolako koplarik ez duena, Barandiaranek berak soinu txikiarekin sorturiko *Mezobarri* pieza bizi-dantzagarria. Gainerako kantu guztiengunak egilea ere Barandiaran da. Hura arduratu da soinu txikiaz, txalapartaz eta elektronikaren egokitzeaz, baita proiektuaren gidaritzaz ere. Ander Hurtado de Saratxo (perkusioak eta bateria), Kike Mora (kontrabajoa eta baxu elektrikoa) eta Alberto Rodriguez (gitarra eta mandolinak) ohiko kideak izan ditu alboan abuztuaren egindako

grabaketan. Kolaboratzailez ere ondo hornituta dator lan berria, diskoari soinu aberastasun eta sendotasun handia emanez. Honako hauek parte hartu baitute bertan: Luis Peixoto (gitarrek, zarrabeta eta mandolina), Xabier Zeberio (biolina), Ivan Allue (alboka, eskoziar gaita eta whistlea), L.M. Moreno *Pirata* (tronpeta, tronboia eta sakoak), Xabier Berasaluze *Leturia* (panderoa eta ahotsak), Leire Berasaluze (ahotsak), Imanol Urkizu (ahotsak), eta Kristina Aranzabe (ahotsak).

Xabier Amurizak berak kantatzen du zenbait piezatan, eta haren hitzezko azalpenak datoz kantu bakoitzarekin diskoaren liburukian ere. Kantu batzuk hasi eta buka sortu ditu Amurizak, eta beste zenbait tradiziozko hitzetatik abiato, osatu edo berregin ditu. Hitz tradizionaletatik jasoak dira, *Ezkondu nintzanean*, *Marinel emaztea* eta *Meridianoa Greenwichen*. Diskoa ixten du azken horrek eta honela azaltzen du Amurizak: "Kopla hauentzut erakutsi nahi nuen genero tradizionalak, modernoa izateko, kontzeptuak eta ideiak aldatzea besterik ez duela behar. Testuingurua, urtean behingo ospakizun bat. Edukia, ironiko-korrosibo-baikorra. 'Heriotzak ez nau maite, lurpean behar ez naute'. Orain arte, behintzat. Beraz, 'biziko naiz elegante, urtean behin gutxienez'. Zergatik ez urte osoan?".

Amurizak oso-osorik sortuak dira, aldiz, beste sei hauek: *Ederregia zelako*, *Urtaroak*, *Porru gazia*, *Laja badoa!*, *Bizitzeko jaio* eta *Ene izar maitea*.

GORKA EROSTARBE
Kazetaria



BRIDGE

FRIENDS
LA SERIE DE TELEVISIÓN
EL LIBRO DE COCINA OFICIAL

F.R.I.E.N.D.S
LA SERIE DE TELEVISIÓN

El libro que todos los fans de FRIENDS están esperando.

Recetas y anécdotas de la mítica serie de TV


Benjamin Lacombe

PRESENTA



BAMBI

Una vida en el bosque



IMPRESIONANTE
DESPLEGABLE
DE 12 PÁGINAS



*Una magnífica interpretación
de este clásico de la literatura.*

EDELVIVES

KATTA: "UDALEKUAK" eta "IHESI"

Katta eta bere lagunak udalekuak gogoratuz

Katta eta bere lagunek joan den udan udalekuetan izandako bizipenak eta eginiko lagunak gogoratuko dituzte. Eta handik gutxira, Kattak, lagunekin haserre, basotik ihes egindo du, baina herrian ustekabe desatsegain bat izango du.

Miren Agur Meabe / Lotura Film
ELKAR



TXOMINTXO ETA PERUTXO LEHENDAKARI

Dena hankaz gora jarriko dute egun gutxi batzuetan

Astelehen goiza da eta Txomintxo eta Perutxoren ikasgelakoak Gasteizera doaz autobusean. Gaurkoan bisita berezia dute: Eusko Legebiltzarra. “Legebiltzarrean, helduek bozkaz hautatutako legebiltzarkideak egoten dira”, azaldu die Txoxe maisuak. “Eta zer egiten dute han legebiltzakideek?”, galdezu du Urtzik. “Legeak egin, denon dirua zertan gastatu eztabaidatu, jaiegunkan noiz jarri erabaki... gauza asko!”. Txomintxo eta Perutxori ez zaie batere lan zaila iruditu. Are gehiago, oso diberigarria dirudi!

Txomin eta Peru Magdalena / Iosu Mitxelena
► ELKAR



AMONA TOMAXA ETA GIZANDIA

Ahozko literatur tradiziotik jasotako ipuina

Ixabel Agirresarobe / Mattin
ELKAR

Amona Tomaxa baserrian bizi zen, eta herritik urrutti samar egon arren, auzokoak aholku eske askotan joaten zitzaitzkon. Udaberria bazetorren eta oso laguna zuen Patxi Putxi artzaina ahuntz taldearekin mendira joateko zen. Horretarako, zubia zeharkatu beharko zuen, baina gizandi beldugarri bat egoten zen bertan eta bidean harrapatzuen guzti-guztia oso-osorik irentsi ohi zuen.

APRENDE Y DIVIÉRTETE CON LOS LIBROS INFANTILES DE

PANINI BOOKS
www.paninibooks.es

Dos libros en uno

Con páginas caladas

Con sonidos

Con 4 páginas puzzle

Con luz

Con rimas. ¡Encuentra al camaleón invisible!

Con ventanitas

PVP RECOMENDADO

21,50 €	19,95 €	11,95 €	11,95 €	11,50 €	12,95 €	11,95 €
---------	---------	---------	---------	---------	---------	---------

KLIMAREN LAGUNAK bilduma

Bilduma honetako liburu bakoitzean Klimaren lagunek abentura bat bizi dute, eta hain moduraz azalduko dute –maiz, era dibertigarri gainera– zer egin dezaketen ingurumena zaintzeo.

Bi liburu hauek ekintza txiki batekin gauza handiak lor daitezkeela era-kusten duten kontakizunak jasotzen dituzte. Horrez gain, ingurumena zaintzeko ariketa polit bat ere topatuko du irakurle txikiak liburuan amaiaran.

PLASTIKO-ZOPA ◀
Klimaren lagunak hondartzara joan dira egun-pasa, eguzkiaz eta itsasoaz gozatzera.

Igela uretan murgildua, eta ur-azalera irten denean, plastikozko poltsa bat du buruan. Azeria barrez hasi da. Igelak itsas-munstro bat dirudi! Baino plastikozko poltsa ez da uretan flotatzen ari den gauza bakarra. Zergatik dago hainbeste plastiko itsasoan?



Judith Koppens / Andy Engel / Nynke Mare Talsma
TTARTTALO

BAI ONDO ILUNPEAN!
Klimaren lagunak kanpatzera joan dira eta izarrak ikusi nahi dituzte. Baino azeria nekatuta dago. Ez du ondo lo egin. Hontzak dioenez, inguruko argi guztientzat gertatu zaio hori. Argia ona da, energia ematen baitigu, baina iluntasuna ere behar dugu. Eta batzuetan, ilunpean argitan baino gehiago ikus dezakegu... ▶



SAGUTXIN ETA ILARGI-ARRANTZA

▷ Saguton eta Sagutxin aita-semeak magia truko sinestezin bat egingo dute, eta ustez potxingo batera erori den ilargi zati bat bueltan zerura bidali.

Matpaille / Agatha Moureau
► TTARTTALO


Pertsonaia maitagarriak, zirkuaren usain gozoa airean, magia truko ikaragarria eta bukaera goxo-goxoa... Xalotasunez bezain beste inteligentzia betetako album ilustratua.

David Vlietstra / Renske de Kinkelder
TTARTTALO

IKASI IRAKURTZEN OILOAREKIN ETA SAGUAREKIN

Liburu umoretsu bat, irudi alaiz hornitua, haurrekin batera irakurtzeko. Atal bakoitzean, testu bat elkarrekin irakurri, eta gero, haurrak bakarrik jarrai dezake.

